

Donostia, 2017ko abenduaren 15a

IDAZKARI NAGUSIARI

TALDEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udal gobernuak oposizioko taldeei informaziorik ez emateari buruz hilabete honetako ZERBITZU OROKORREN Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Askotan gertatu da udal taldeek (zenbaitetan baita gobernuko kide den taldeetako batek ere) prentsaren bidez jakitea udalak edo honek eskatuta kanpoko enpresek landutako txosten, proiektu eta udal kudeaketako datuen berri.

Urrutira gabe, Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkestaren emaitza nagusiak, edo datorren urterako aurrekontu proiektua bera, prentsari lehenago aurkeztu zaizkio oposizioko taldeei baino.

Ulertzen dugu posizionamendu politikoen inguruko komunikazioak talde bakoitzarenak direla, eta, beraz, gainerako taldeek ez dutela horien berri jakin beharrik publikoki aurkeztu baino lehen. Baina udal kudeaketarekin zerikusia duten txosten, proiektu eta datuei dagokienez, tratamenduak beste bat izan behar du, eta uste dugu zuzenagoa eta bidezkoagoa dela udal taldeek horien berri jakitea publikoki aurkeztu baino lehen. Donostia Kulturaren baitan egiten dena izan daiteke jarraitu beharreko eredu. Organo horretan, oro har, prentsara komunikatuko diren alderdien berri ematen zaie Administrazio Kontseiluko kideei.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio komunikabideen aurrean aurkezteko asmoa duen edukiak udal talde guztiei aurkez diezazkiela aurrez, aurkezpen publikoa egin baino lehen. Irizpide hori aplikatuko da kasu hauetan: udal kudeaketari buruzko informazioa denean, Udaleko edo udal erakunde publikoetako nahiz udal partaidetzako erakundeetako langileek sortua, edo udalak kanpoko enpresa bati eskatuta sortua.

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.